

Bizkaiko Campuseko ikasleentzako kultura-beken

2025/26 deialdiaren oinarriak

1. Deialdiaren xedea

Programa honen helburua ikasleen sorkuntza artistikoa sustatzea da, kultura-beken bidez, jatorrizko obra bat sortu eta aurkeztuko duten ikasle taldeak sortzea. Talde onuradunei laguntza ekonomikoaz gain, beren lana garatzeko formazio osagarria eskainiko zaie bekaldiak irauten duen bitartean.

2. Modalitateak

Taldeek, honako diziplinatako proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte:

- Musika (taldeak, koruak)
- Arte eszenikoak (antzerkia, dantza, performancea)
- Arte bisualak (erakusketak: pintura, eskultura, instalazioak, argazkigintza; ikus-entzunezko proiektuak)

3. Hartzaileak

Deialdi honetan, 2025/2026 ikasturtean graduako, graduondoko edo doktoregoko ikasketetan matrikulatuta dauden EHUko Bizkaiko Campuseko ikasle guztiek parte hartu ahal izango dute.

4. Taldearen osaera

- Taldeek gutxienez 3 kide izan beharko dituzte.
- Taldekide guztiek unibertsitatean matrikulatuta egon beharko dute.
- Ikasle berak ezingo du proiektu batean baino gehiagotan parte hartu.

5. Laguntza ekonomikoa

Eskatutako irizpideak betetzen dituzten bost beka emango dira gehienez, eta bakoitzak **3.000 euro** izango du. Hori da talde bakoitzak bere proiektu

artistikoa garatzeko jasoko duen laguntza. Ondorengo ordainketa-egutegia jarraituko da:

- 1. ordainketa: 1.000 euro, behin sarituen ebazpena argitaratuta, 2025eko azaroan.
- 2. ordainketa: 1.000 euro, Bizkaiko Campuseko Ikasleen, Euskara eta Kulturako Zuzendaritzak sortutako epaimahaiak laguntzaren hartzaile den taldearen jarraipen-txostena jaso ondoren. Taldeek txosten hori, beranduen 2025eko abenduaren 12rako entregatu beharko dute.
- 3. ordainketa: 1.000 euro, Bizkaiko Campuseko Ikasleen, Euskara eta Kulturako Zuzendaritzak sortutako epaimahaiak taldeak entregatutako azken txostena jaso ondoren. Taldeek txosten hori beranduen 2026ko otsailaren 27rako entregatu beharko dute.

2026ko otsailaren 27ra arte sortutako fakturak azken txostenarekin batera entregatuko dira; gainerako fakturak amaitutako proiektuarekin batera entregatuko dira, beranduen 2026ko martxoaren 31n.

Goian aipatutako zenbatekoak banku-transferentzia bidez ordainduko dira, izena emateko inprimakian taldeko ordezkari gisa izendatutako pertsonaren kontura.

6. Iraupena

Obrak 2026ko martxoaren 31rako amaituta egon beharko dira. Data horretatik aurrera, obren aurkezpen publikorako leku eta data egokiak zehaztuko dira.

7. Aurkezpena

Obrak 2026ko apirilean, maiatzean eta ekainean zehar aurkeztu beharko dira, Bizkaiko Campuseko espazio batean.

Epaimahaiak eskubidea izango du kalitate-irizpideak edo deialdiaren baldintzak betetzen ez dituzten obrak baztertzeko; kasu horretan, jasotako diru-laguntza itzuli beharko da.

8. Eskabideak

Eskabideak aurkezteko epea urriaren 1etik 24ra izango da, biak barne.

Eskaerak Bizkaiko Campuseko Ikasleen, Euskara eta Kulturako Zuzendaritzaren posta elektroniko ofizialaren bidez aurkeztuko dira, ehukultura-bizkaia.info@ehu.eus helbidera bidalita hain zuzen. Honako hauek jaso beharko dituzte:

- Izena emateko inprimakia, behar bezala beteta.
- Taldeko kide guztien NAN edo egoiliar-txartela eta taldearen ordezkariaren izen-abizenak eta kontaktua argi azalduta.
- Proiektuaren memoria* (gehienez 10 orrialde), honakok barne-hartuz:
 - Titulua eta modalitatea.
 - Obraren deskribapena.
 - Ekarpen artistikoa.
 - Lan-kronograma.
 - Komunikazio-plana.
 - Proiektua garatzeko eta azken aurkezpena egiteko gutxi gorabeherako aurrekontua.

* Memoria hizkuntza inklusiboarekin landu behar da eta EHUren balioak errespetatu behar ditu.

9. Hautaketa

Balorazio batzordea Bizkaiko Campuseko Ikasleen, Euskara eta Kultura Zuzendaritzako ordezkariak, gaian adituak diren irakasleak eta teknikariak

osatuko dute. Aurkeztutako lanek 100etik 60 puntu lortu beharko dituzte gutxienez.

10. Balorazio-irizpideak (gehienez 100 puntu):

- Proiektuaren originaltasun artistikoa eta interes kulturala: 40 puntu
- Euskararen erabilera proiektuan: 20 puntu
- Bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa: 15 puntu.
- Taldearen aniztasun akademikoa, hau da, taldeak ezagutza arlo desberdinetako ikasleek osatzea baloratuko da: 15 puntu.
- Komunikazio-plana: 10 puntu

11. Onuradunen betebeharrak

- Proiektua ezarritako epean garatu eta amaitzea.
- Obra jendaurrean aurkeztea Bizkaiko Campuseko Ikasleen, Euskara eta Kulturako Zuzendaritzak antolatutako ekitaldietan.
- Bekaren erabilera justifikatzea, txostenen eta fakturen bidez (txosten eredua bidaliko zaie bekaren irabazleei).
- EHUren eta Bizkaiko Campuseko Ikasleen, Euskara eta Kulturako Zuzendaritzaren logoa txertatzea hedapen-materialetan.
- Sare sozialetan gutxienerako hedapen-plan bat diseinatzea eta gauzatzea, gutxienez lau argitalpen bilduko dituen talde bakoitzaren Instagrameko kontuan. Argitalpen horietan, @EHUkultura kontu ofiziala laguntzaile gisa etiketatuko da. Hau da, bekaren onuradunek bekaren xede den jarduerari buruzko gutxienez lau argitalpen egin beharko dituzte taldeko pertsonen sare sozialetako profiletan obra artistikoa jendaurrean aurkeztu arte. Argitalpen guztietan berariaz aipatu beharko da @EHUkultura kontua kolaboratzaile gisara, bekaren ondoriozko ekintzak behar bezala ikusaraziko direla bermatzeko. Deialdia egin duen erakundeak egindako argitalpenak egiaztatzeko eskatu ahal izango die onuradunei.

12. Azken xedapenak

Deialdian parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea. Edozein kontsulta egiteko, interesdunek honako helbide elektronikora jo dezakete: ehukultura-bizkaia.info@ehu.eus.